

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2016

Joan zen maiatzaren 30ean Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak aho batez onetsi zuen Euskal Herriko Unibertsitatearen ekonomia-finantza jardueraren 2016ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena.

Urteko kontuei dagokienez, HKEEk aldeko iritzia plazaratu du, nahiz ezin eman izan duen iritzirik Berariazko Geldikinaren zuzentasunaren gainean (77,3 milioi euro), zeinaren atal bat Gastu Orokorretarako Geldikintzat hartu behar litzatekeen, ez eta Bibliografia Funtzen saldoaren gainean ere, kontularitzan 22,3 milioi euroren balio garbia duena.

Finantza egoera dela-eta, Epaitegiak azpimarratu du emaitza arruntak izan duen igoera, transferentzia arruntek gora egin izanaren ondorioz eta kapitaleko eragiketen defizitak behera egin izanaren ondorioz, gauzatutako inbertsioek ere behera egin dutelako. Zorpetzeak behera egin du 2015ean, seigarren urtez jarraian, eta gora egin du gastu orokorretarako geldikinak ez ezik, berariazkoak ere bai. Epaitegiak ondorioztatu du inbertsioak etorkizunean egin ahal izatea finantzaketa eskuratzeko gaitasunaren baitakoa dela, bai kapitalezko diru-laguntza bidez, bai berriz ere zorpetuta.

Txostenak, gainera, adierazi du 2016ko aurrekontuaren likidazioak oreka eta iraunkortasun printzipioak betetzen dituela, Urteko Kontuetan jasotako informazioaren arabera.

Txostenak ondorioztatu du Unibertsitateak zuzentasunez bete duela 2016an ekonomia-finantzazko jarduera arautu duen lege arautegia; alabaina, zenbait ez-betetze azaleratu dira bai Langileriaren Gastuen alorrean (irakasleei arautegian aurreikusi gabeko kontzeptuengatik 672.888 euroren ordainsariak ordaintzea eta aldi baterako lan kontratua duten irakasle eta ikerlariantzat Unibertsitateen Lege Organikoak ezarritako irakasleen plantillaren % 40ko muga gainditzea), bai Administrazioako Kontratazioan ere (7 espedientetan urteko aurrekontu gehienekoa edo esleitutako zenbatekoa gainditu izana eta Uda Ikastaroak Fundazioak publikotasunik edo lehiarik gabe izapidetutako 366.948 euroren gastuak).